


# URA

Taldeka, har ezazue zuen etxera heldu den ur hornikuntzaren azken ordainagiria eta fitxako ariketak bete.



<b>BBVA</b>		HELBIDERATZE -ZORDUNKETA	
ZERGA:		TITULARRA	
URA	* IFK-P2001300E	KOLDO IBAIERREKA ITURRI	
485 ORD.AG.ZKA- 20.844 EPEA-2007 UZTAILA- IRAILA		<b>IFK-CIF -15118236P*</b>	
LEKUA-- ARRABAL 6, 1D AZPEITIA			
AURREKO I- 2.382	*1.ko-30X0,77 = 23,10	KANONAK=	4, 54
EGUNGO IR- 2.445	*2.ko-20X0,83 = 16,60	*URA.....	53, 35
ALDEA- 63	*3.ko-13X1,05= 13,65	*ESTOLD=	8, 82
		*BEZ (7) =	3, 73
FAK. KONTS- 63	*GUZ.-63 = 53, 35	*BEZ (16)=	0, 73
Edozein azalpenarako, entitate jaulkitzailearengana jo.		<b>KUOTA: : EUROS***** 71, 17</b>	



✍ Zenbat hilabeteko ur kontsumoa hartzen du kontuan?

---



---



---

✍ Denbora tarte horretan zenbat metro kubiko kontsumitu dituzue?

---



---



---

✍ Egin kalkulua litrotan: .....

---



---



---

✍ Kalkula ezazu zure familian, pertsona eta eguneko, batz bestez zenbat ur kontsumitzen den: ..... l/pertsona/eguneko .....

Kontsumoa/etxeko pertsonen kopurua =

\_\_\_\_\_

92 egun

## URA

✍️ Konpara itzazu datu hauek zure herriko datuekin:

(12,95 l / per. / eguneko Azpeitin eta 113,78 l / per. / eguneko Legazpin).

✍️ Gehiago edo gutxiago kontsumitzen duzue etxean?

Gehiago     Gutxiago

✍️ Egin ezazue zerrenda bat etxeko uraren erabilera zehaztuz. Kalkula ezazue zenbat ur behar den erabilera bakoitzerako (platerak garbitzeko, komunerako, dutxatzeko, bainatzeko, garbigailurako, eta abar).

Hau egiteko ura duten edo jasotzen duten ontzien bolumena kalkulatu edota taulak erabil ditzakezue. Irakurri garbigailua erabiltzeko jarraibideak bertan azalduko baita zenbat ur kontsumitzen duen martxan jartzen den bakoitzean (ura kontsumitzen duten beste etxetresna elektriko batzuk erabiltzen badituzue, horien kontsumoa ere idatziz jaso).

✍️ Zein da Azpeitiarrak uraren inguruan duten jarrera? .....

✍️ Guztien emaitzak elkartu ondoren, ondorioak atera itzazue eta aipagarrienak zerrendatu proposamenak egiteko. ....

